

## **GETARIA / Iñigo Aranbarri idazlearekin solasaldia gaur liburutegian 'Zulo bat uretan' eleberriaz**

DV. Getariako Udaleko euskara sailak antolatuta, gaur 20:00etan Getariako udal liburutegian izango da Iñigo Aranbarri, 1963an jaioako azkoitiar idazlea, bere bigarren eleberriaz, Zulo bat uretan, mintzatzeko. Hori dela eta Udaletik nobela irakurtzeko gonbidapena luzatu zaie herritarrei, idazlearekin solasaldia egin ahal izateko, horretarako eleberriaren hainbat ale herritarren eskura jarritz. Hau eskuragarri dago ere, nahiago duenarentzat, [www.armiarma.com](http://www.armiarma.com) web gunean.

Zulo bat uretan Iñigo Aranbarriren bigarren eleberria dugu, Susa argitaletxeak argitaratua. Euskarazko Zillarrezko Euskadi Saria jaso du azkoitiar idazleak nobela honegatik, Gipuzkoako liburusaltzaile elkarteak Donostian apirilaren 23an urtero ospatzen den Liburu Eguneako azokan egile salduenei ematen diena.

Bere bigarren eleberria 2003 urteko udaberrian kokatua dago, Itoitzko urtegiaren inguruan. Bertan, urtegia betetzeko inguruko herriak husten ari dira, Londigan eta Artzibarren, bizidunekin batera kanposantuetako hilak ere atera behar dituztelarik. Lan horretaz arduratuko da Maite Andueza antropologo-forensea, Oscar Iriarte etorkin argentinarraren laguntzaz. Nobela honek Imanol Arellano du narratzailea, Historiaren zaborteziak irentsi aurretik edertasunak zikindutako istorioak biltzea maite duen kazetaria. Denborak kontra jarri zion ikerketan murgildua, jakin dituenak idazteko premiak larrituta dauka, lurpean ezkutatuta dagoena azalera ekarri ezean erreportajeko kontakizunak ezin frogatuzkoak bihurtuko baitira urpean.

Sigi-saga egiten dute eleberri honetako pertsonaiek eta istorioek ere bai. Batekin hasi, besteari ekin, eta denboran atzera eta aurrera dabilkigu egilea. Izan ere, denbora, horixe da gakoa, horixe liburu honetan altxorrik preziatuena, urri dagoena. Urak desagertu araziko duen herri bat bere historia eta istorioekin

### **Idazlearen beste lanak**

Filologian lizentziatua, irakaslea da Aranbarri. Zulo bat uretan (Susa, 2008) bere bigarren nobela dugu. Lehena, berriz, Emon bihar yako (Susa, 1994). Olerki bildumak ere idatzi ditu: Jonas Poisson (Susa, 1986), Dordokak eta elurrak (Susa, 1989), Harrien lauhazka (Susa, 1998).